

ZAR

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

216n. zenbakia
epailla/martia 1997



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE



ONAINDIA'TAR SANTI AITA
(EUSKALDUNA)

ZURE ADISKIDEAK EZ GARA AIZTUTEN

SOINKIEN LANIZTEA

Beinola baten, beste asko lez, soineko begiak, besoak, oinak, biotzak eta kirioak, sabel alpergaz asarratu ziran, bearrik ez ebalako egiten edo.

Marmarka alkarren artean esaten ei eben:

—Sabel alper ori, bai ederto bizi dala! Or barruan beroberotan dago, jan ta to besterik ez. Guk, ostera, emen gau ta egun bearrean diardugu, sabel alper orreri jaten emoteko. Zertarako gura dogu artean olako alpertzar ori?

Begiek esan eben:

—Gu, emen gagoz bekoki erdian, beti zuur, gorputzaren jagole ta gidari. Eta sabela beti lo-alperkerietan? Ez olangorik!

Besoek esan eben:

—Gu, soloan nai lantokian, atxurra eta mailua eskuetan beti bearrean, sabel alper orrentzat irabazi daigun? Ez olangorik!

Oinek esan eben:

—Gu, errotako asto zaarra beino itoago, gorputz astuna gure ganean aide batetik bestera ezin eroanez, eta bien bitartean, sabel nagia nasai eta zabal alperkeria utsean?

Biotzak esan eban:

—Ni, gau ta egun, ekin ta ekin, odola gorputz guztira beti bialduten eta sabela, arbi-lorea baino alperrago? Ez olangorik!

Kirioek esan eben:

—Guk, soin guztian zear, argindar arien antzera, gorputz atal guztiei indarra emoten eta sabel alpertzar orrek bear tutik egin ez? Ez olangorik!

Eta begiek, besoek, oinek, biotzak eta kirioek, danak alkar artuta, bearrik ez egitea erabagi eben.

Baina, zer jazo zan?

Gorputz osoa, apurka-apurka, argalduten, makalduten eta indarrak galduten asi zala.

Begiek ezin ikusi. Besoek bear egiteko indarrak ez.

Oinak makaltasunez ezin ibili. Biotzak ezin odolik emon. Kirioek soinkiak ezin erabili... Andik lasterrera, gorputz osoa ilteko arriskuan egon zan.

Orduan bai ezagutu ebela, begiek, besoek, oinek, kirioek eta biotzak, sabela ez zana uste eben besteko alperra. Sabelak, an barruan, isilean, janariak txegosten eta onduten gorputz osoaren onerako bear ederra egiten ebana.

Andik aurrera, lagun onak izan ziran eta ipuin mamin-tsu au amaitu da.

Ori olan bazan,
ez bazan,
ez niri esan.

(GIZA-SOINA liburutik)

Iniaki MARTIARTU
1996eko irailean

Berbalapikoa

soinki = gorputzaren atal edo zati.

lanizte = greba.

soin = gorputz.

kirio = zan, nerbio.

sabel = urdail.

marmarka = tzur-tzurka, agopean, txutxumutxuka.

jardun = egiten egon, aritu, eragon.

nagi = alper, zabar.


argindar ari = kable.

atal = zati, zatiki.

alkar artuta = guztiak batera, ago batez, eritxi batera.

txegosi = jana sabelean eio, lixiritu.

ondu = guritu, umotu, gozatu, eratu. (jakiak).



Eusko Jaurlaritzaren Laguntzaz.

Kultur Saila'k diruz lagundutako aldizkaria.

IRAKURLEAI OARRA

ZER aldizkariak eta EUSKERAZALEAK ALKARTEAK'K ba-dauke Bilbao inguruan urteko arpidetza eskuratzeko erea. Etxerik etxe joaten da kobratzaillea. Baiña gauzea ez da ain erreza errietan. Orregaitik eskari au egiten dautzuegu: Bialdu eiguzue txartel edo txeke bat. EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren izena ipiñi ta 2.000 pezeta dirala idatzita. Txartel ori sartu karta-azal batean eta gaiñean zuzenbidea ipiñi: EUSKERAZALEAK ALKARTEA.

Colón de Larreátegi, 14, 2º, eskoia. 48001 BILBAO

Eskerrik asko urtero zintzo-zintzo ordaintzen dozuen guztioi.

EUSKEREAA IKASTEKO AMAR AGINDU

Leenengo agindua izan bearko dau, nire ustez,
euskerea maite izateak, sakon eta biotzez;
egunero eta nongura itz edo berba eginez,
gure arbasoengandik ondo ikasi genduanez.
Bigarrenak dinosku ez galduteko alperrik,
gure eztabaidetan, ez denbora eta ez indarririk.
Euskerearen izen goztoa agotan artuta, bakarrik,
asko eta asko dabil gure artean ganora barik.
Irugarrena da, bai, pozgarri eta alaitsuena:
norberekeria guztiak alboratuten dauazana
ta euskal arloan jakintsu eta jatorrena.
Alkar onartuta, izango dogu jairik ederrena.
Laugarrenaren esana da gurasoak aintzat artutea.
Ze ederra da, benetan, gure euskal baratza!
Gure oitura, izakera eta izkuntzeari ez emon atzea.
Alan ez balitz, ez da naikoa gero eskuak garbitutea...
Bosgarrena, inor ez iltea. Au. bai lege garbia.
Nor da munduan maite ez dauana bere sendia?
Danok ikusi gura dogu euskera bizkor bizi-bizia,
bera da eta, gure biotz barrenako benetako zatia.
Seigarrenaren arabera, uxatu gogamen txarrak.
Aalegindu gaitazan guztiok izaten baikorrek.
Garaile izango gara etorkizunean euskotarrak,
gure gurasoen antzera, bagara beti azkarrak.
Zazpigarrena. Ezelango lapurketarik ez egin inori.
Oi, guraso! Arrokeriaz ez eiozu kendu zure umeari
euskerez jakiteko daukan eskubide jator ori.
Egiten badozu, aldendu zaitez betiko, madarikatu ori!
Zortzigarrenaren irakatsia: guzurrik inori ez esatea.
Zorioneko euskera mordoiloak sortutako naaste-borrastea
bai dala guzurrez betetako sasi-arazo buztan luzea...!
Batasun biderik laburrena da, euskerez beti ondo egitea.
Bederatzigarrena. ez zaitez sartu inoren emazteagaz.
Gonadun artean ba'zabiltz iango dozu naiko burukomin...
Euskerearen aide. beste gauzarik ezin badozu egin.
mesedez, ez aaztu au: euskerez beti jarrai eta ekin.
Amargarrena. Besteen ondasunen naikeriak itzi.
Nik zer egin bear dogun gura deusuet irakatsi:
euskerea egunero sakondu, aberastu eta jantzi,
ze, on egin ezkerro, biziko da gaur, biar eta etzi.

ALKARTASUNA (Bakioko kondairea)

Elezaarrak dinoanez, ez dakigun zein urtetan
Asturiastarrak agertu ziran gure itsasaldean;
eta ikaragarritzko lapurretak egiteko ustean,
ausarkiro sartu ziran gure Bakioko lurretan.
Maltzurkeriaz, ustebatez eta isilean
eraso euskuen negargarritzko gau batean.
Gureak egon ziran egoera txarrenean.
Non bilatu indarra, ez bazan alkartasunean?
Bat-batean entzun zan adarraren otsa.
Bereala itzartu zan bakiotarren biotza.
Estualdi aretan bat zan danon agotsa,
kanpotar madarikatuei emoteko lotsa.
Zantzoa entzun ostein, urrango goizaldean
asi ziran matraka eta burrukea talde bien artean.
Bakiotarrak batuta Birjilandako tontorrean,
garaile lotu ziran errez ilunabarrean.

Zorionez, amaitu zan gudaketa gordina;
betirako agertu zan Bakion zeru urdina.
Ziur lortuko geunke guk be, elburu bardina,
alkartasunean areen antzekoak izango bagina.
Antxina ikasi genduan zer dan abertzaletasuna.
Baita be, bearrezkoa dala beti alkartasuna.
Ez aaztu inoiz gure arbasoen oiartzuna:
on-elan, Bakio izango dala beti txapelduna.
Umezaroan Bailén, Pavia eta Waterloo
gure buru kaxkarretan sartu ezin, a mordoilo!
Aitatu barik lotuten zan beti Bakio.
Omenaldi txiki bat, nire ustez, gaur joako.
Orduan jazo zan guztia ondo azterturik,
besoak zabaldua, gedarka, dinotsuet nik:
zer dala eta. gure artean ez dago batasunik?
Ez gagoz, gaur be, arerioz inguraturik?
Aalegindu gaitazan buruan sartuten leenen
zein lege gorde bear dogun beti emen:
zalantza barik, giza eskubideei egin men.
Alan izan daitela "in saecula saeculorum". Amen.

Martin Goitia
1981 eko BAKEA aldizkarian

(Iniaki MARTIARTUK egokituta)

Berbalapikoa

nongura = edonon.
agotan artu = aitatu, agoan erabili.
aintzat artu = ondo eritxi.
baratz = solo, ortu.
oitura = ekandu.
sendi = familia.
gogamen = burutapen, burutazino.
garaile = irabazle.
azkar = zuur.
aldendu = aide egin, ospa egin.
mordoilo = berbakera txar eta ulergatxa.
naikeria = inoren ondasunen egarria.
elezaar = ipuinzaar
ausarkiro = bildur barik
maltzurkeria = azpikeria, amarrukeria.
ustebagez = uste barik, ezuztean.
bilatu = bila ibili.
bat-batean = brastakoan, sostean, itsumustuan.
lotsa emon = norberarenganako bildur eta begirune eragin.
matraka = naaste, akar, istilu, iskanbil. gatazka.
garaile = irabazle.
ilunabarrean = ilundian.
gudaketa = burrukaldi, erasoaldi.
oiartzun = gedar, durundi, deadar.
kaxkar = txiki.
mordoilo = naaste-borraste, mataza, saltsa.
arerio = etsai.
giza eskubideak = edonork daukazan gitxieneko eskubideak.
men egin = bete, ontzat artu. esanak (legeak, aginduak...) egin.
in saecula saeculorum (latinez) = gizaldi eta gizaldi guztietan.

ONDOEZA (1º SARIA)

Orain kontatuko dautsuedan gertaera au, neuri gertatutakoa da, sinisgaitza izan arren.

Ni, Bizkaian aurkitzen dan Mungian bizi naiz azkenengo ogei ta iru urteetan, jaio nintzanetik eta ona.

Gazte-gaztetandik sortu jatan perretxikoetarako zale-tasuna eta, perretxiko asko ezagutu ez arren, neure berrogei ta amar- irurogei mota ondo ezagutzen dodaz.

Aste-pare bat dala eta mikoloji-alkartean nenguala, perretxiko barri baten barria jakin neban: "Panaeolus phalaenarum" zan bere izena eta "mongi" lez ezagutzen eben.

"El Correo" k idazlan luze bat ekarren berari buruz eta auxe adierazten eban: Perretxiko onek zaldi-korotzetan urtetan ebalatzen eta kolore zurizka motela eukala, aillea edo oiña oso meea ta mengela, txapela barriz txuntxur bat lakoxea.

Urkiolako abadearen esanetan, oso pozoitsua izanik, mendian jente bereizi asko ikusten zala azken-aldiotan eskutada bat ekarrela ango inguruetatik, eta ez bakarrik gazteak, lantzean agure bat be bai.

Gordiñik jateko ez da atsegin-atsegifia, sapore mingotsa daukote, baiña arrautz-opilla eginda jateko itzel paretan da, baiña kontuz dozena-erditik gora jateagaz! Giblean eta giltzurrunetan egiten dau eraso eta asko jan ezkeron il be egin leike, bear ba da! Abadeak onako zeaztasun au be argi itzi eban: Lenagoko akelarreak be perretxiko orren inguruan egingo zirala seguruenetik, bere bereiztasun amets-sortzailleak (aluzinoje-noak) kontuan izanik.

Idaz-lan on irakurri nebanean, mikoloji-alkarteko lendakariak perretxiko orreri buruz berak ekiana azaldu eustan: Bost edo sei urte dirala, Suedian, bertako mikoloji-alkarte batek perretxiko orreik dastatu eta persona bat ipiñi eben zer egiten eben eta zelako ondorena sortzen eutson olako perretxiko orrek, jakiteko, bideoan grabatzen eta oarrak artzen.

Ondorenak ordu-erdigarrenean asten ziran eta guztiak artzen eben ikutua auxe zan: Atx-ertz edo "akantilado" baten ondotik joiazela, jausteko ikara itzalagaz, beste irudipen eta izu askoren artean.

Nik lendakariak itaun au egin nautsan: Orain-arte zer dala-ta ez dogu jakin perretxiko onen barririk?

— Perretxiko on beti egon da gure artean, baiña iñoz ez jako iñori gustetan parretxiko on zelako gauzak egiteko gai dan esatea eta eztabaidatzea. "L.S.D." azido, lo-bedar edo drogaren parekoa dalako eta oraintsura arte guztiz debekatuta egon dalako arlo on legearen alde-tik. Perretxikoak ez egozan droga zerrendara sartuta (katalogatuta) eta orrek ez dau sortzen ezin-egonik.

Lendakariaren esanak belarriak erne daukadazala entzunda, andik aste batera Gorbeira joan nintzan, bakar-bakarrik, eguna igaroteko.

Ainbat bidar kurutzean izana nazan ezkeron, bide barri bat artzea erabagi neban: Itzinara, Itzinatik Arrabara eta Arrabatik Ipergortara. Ipergortatik beerantz nentorrela, pottoka batzuk ikusi nebazan lantzarrean, barrutian jaten egozala eta bertan zabaldua egozan pottoka-korotzen artean perretxiko zurizka batzuk antze-

EUSKERAZALEAK ALKARTEA

IPUIN-SARIKETA: 1996

1996'ko Ipuin-Sariketarako EUSKERAZALEAK ALKARTEA-ren eskariz, maiko izan diranak, auxe erabagi dabe:

LENENGO SARIA: 40.000 pezeta, Legan-eta eta Legarreta'tar Asier jaunari.

BIGARREN SARIA: 30.000 pezeta, Goikoetxea'tar Iñaki Aitari.

IRUGARREN SARIA: 20.000 pezeta, Etxaburua ta Agirre'tar asier jaunari.

LAUGARREN SARIA: 10.000 pezeta, Zubikarai'tar Augustin jaunari.

Lan saritu oneik ZER aldizkarian argitaratuko dira.

ZORIONAK SARITUAI, ESKERRAK GUSTIAI

man nebazan. Duda-izpirik barik, "panaeolus phalaenarum"aren aurrean nengoan.

Kontu aundiz batu nituan batzuk eta bizkar-zorroaren aide baten ipiñi nebazan bidean apurtu ez eitezan. Etxerantz bidean nentorrela itzelezko gosea sartu jatan eta, eskuturrean erlojurik euki ez arren, ze ordu dan jakin barik, amak goizean ipiñi eustan arrautz-opillezko otar-tekoaren kontra erremesatxu bat astea erabagi neban, aretx zarraren enbor makur aren azpian.

Beste barik burutapen bat otu jatan: Amak ipiñitako arrautz-opil gozo onetan perretxiko-buru batzuk sartu bear dodaz! Igarri be egin barik, lo-zerraldo geratu nintzan andik gitxira bide-bazterrean janarien barruko egozketa egiten nebala eta patxadaz asi nintzan amesetan.

Ezin neban ondo bereiztu ametsa zan ala neure lotal-ditik itzarrrik nengoan. Dana dala, Euskalerrian nintzala duda barik eta, obeto esateko, ez nintzan Gorbeia'ko mendi-katean aurkitzen. Anboto-inguruan baiño. Ezaguna egiten jatan ingurua, baiña Urkiola izateko, ez egoan eleizarik. Eta apurtxu bat beerago dagon taberna? Bardin da. Neure errakuntzaren bat izango da! Eta tipi-tapa asi nintzan ibiltzen.

Konturatu-orduko, koba-zulo batzuan aurrean aurkitzen nintzan, egia esan apur bat izututa. Koba-zuloak ez ziran bape aundiak, baiña bat besteak baiñi arean-arean aundiagoa zan. Begiak ara begira naukazala, emakume gazte ta lirain bat agertu jatan koba-zuloaren atarian.

– Ni Asier eta zu?– itaundu neutsan.

– Ni Anbotoko Mari nozu eta ilkor gitxik ikusten nabe-bota eustan, eta gero: Zu ilkorra izanik, ez dot ondo ulertzen zelan eldu zaran onagiño!

– Neuk be ez– Esan neutsan danba!

– Txarrik ez egistazu egin– esanez jarraitu neban-ze ikusten dot biok garala euskaldunak eta alkarragaz txarto astea baiño ez jaku falta!

Iribarre zabal-zabal bategaz, Mari k esan eban:

– A! Ba-dakit nondik eta zelan zatozen. Zu etorkizunetik zatozen euskaldun bat zara eta orain zagozen lekuan zagozela, jakintsuak esango leuken lez, "un plie-gue en el tiempo" dalako, orregaitik eldu zara gure egu-netara.

Nik orduan larri:

– Eta ezin naz atzera barriri naure sasoirra ta lekura itzuli?

Mari k, barre-santsoka:

– Bai, mutil, baiña egingo dautsudazan itaunai erantzun barik ez! Askok eta askok ni sorgintzat artu arren, ezin daikeet zuretzat oraiñaldia eta niretzako geroa dana zelan doan igarri! Orregaitik, lantzean bein, kasualidadez eta Nagusiak olan gura daualako, zeu etorri zaran

lez, etorten jat nor-edo-nor Euskalerraren barria emotera.

Nik orduan konfiantza geiagogaz:

– Zer gura dozu jakin ba?

Eta berak:

– Gauza bi: Gure egunetako euskaldunak zelan konpontzen dira?

– Asikerea zelan emon ez nekiala asi nintzan berbetan. Nire egunetako euskaldunok ez gara bapere ondo konpontzen alkarragaz. Milla motetako alderdi politikoak gagoz eta geure artean gorroto geiago dago geuri kanpoko batzuk dauskuena baiño.

– Euskerearen egoerea zelan dago?

– Ori be, Mari, ondo ez. Len baiño geiagog jakin arren, gitxiagog erabilten dabe euskerea. Txakurrakaz ete ume txikiakaz geien bat. Agintariak eurak be euskerari garrantzia emoten dautsoelakoa egin arren, erderaz egiten dabe berba parra-parra. Zer gura dozu geiago esatea, egin daustazuzan itaun bietatik bateri be ez dautsat erantzun onik emon-eta. Apur bat lotsatuta nago!

Marik orduan:

– Ez lotsatu! Zu lako gazteak geiago ba'legoz, beste gauza bat izango litzake-ta! Eta ez aztu au: Bakoitxak bere burua ezagutu bear dau lenengo ta bein, eta umore ona ta barre egiteko gogoia iñoz be ez baztertu, umorea dalako txiroen eta biotz onekoen benetako aberastasuna. Euskaldunak euskaldunen artean ondo konpontzea eta euskera maitatze on dira lenengo urratsak.

Bagiak negarragaz erdi-lausotuta daukadazela... urrindu jatan Mariren abotsa.

– E, mutil! Ondo al ago?– Iñostan mendi-goi-zale bat ikusi neban neure arpegitik urrean, bera be aurpegi larriagaz.

– Ilda agoala pentsau joat eta zer egin ez jakiatela aurkitu nok-ziraustan artean.

Nik trankil erantzun neutson:


– Loak artzen nauanean, zurruna lez geratzen naz! Ez orekaitik larritu!

– Ea ba! Ea ba! Ori baiño ez ba'dok!– iñoala urrindu zan uste oneko mendi-goi-zalea.

Otartekoa jaten egon nintzan leku beratan nengoan eta ezin neban ulertu gertatutakoa amets bat ala benetan jazorikoa zan. Ametsa izateko beintzat oso sakona izan zan, usaiñak, aizearen otz-kirria eta emakumearen bertar-raztea barru zirala.

Amaitzeko, lagunak lagunari lez diñotzut, ez iñoz mongirik jan, txarra izan ez arren. Batek ba-daki beste bateri naiz niri atzera saiatu ezkerro, zer agertu leikion.

EUSKALDUN-ERROMATAR ALDIA (I)



EREÑO' KO ARROBIA.
(BLkaia).



"NERVION" IBAIA

Leizeetako aztarnak

- Zer da aldi ori?

—Juan María Apellaniz jaunak (MUNIBE, 1975) dienez, garai edo aldi onek galdera batzuek eragin erazten ditu eta au da bat: Aldi onetan euskaldunek euren ildakoak leizeetan eortzen zituzten; baña, eurok nun bizi ziran? Eta, ondorengo galdera: Noiz uzten diote leizeetan eortzeari, bein romanizatuak izan ezkeroztik?

_ Noiz aide egiten dute leizeetako egoiztetatik?

—Brontzearen aizken aldian baztarten dituzte ar-zu-loetako egoitzak; baña, zer egiten dute arrezkeroz, Jesukristo jaio ondorengo IV'garren gizaldirarte? Noiz agertu ziran Bidasoa'ko inguruan erromatarrek? Historigilleek diotenez, erromatarrek Euskalderria'n Kristo jaio aurretik agertu ziran. Baña, aien etorrerak ezer gutxi agertzen digu Bizkai eta Gipuzkoa'ko leize-aztarnetatik...

— Zer esan nai dezu itz oiekin?

— Apellaniz jaunak, galdera aueri erantzun aal izateko, asmakizun bat egiten du eta asmakizun orrek mailla auek ditu:

1/. Erromatarren taldeak emen (Bizkai-Gipuzko'an) kristautasun garaian sartzen dira, kosta-aldetik, arrain-lantegi eta meatzen billa eta eurak zaintzeko.

2/. Bizkai eta Gipuzkoa'ko euskaldunek leizeetatik kanpora dituzte euren egoitzak; baña, ildakoak kobeetan eortzen dituzte.

3/. IV'garren gizaldian, edo bear ba'da leenago, leizeetara datoz berriro bizi-izatera, gizarte-giroa okertu danean; baña, V'garrenean berriro utziko dituzte, bein betirako, leizeak igoitza bezela. Bitarte orretan zerbait erromanizatzen dira eta ildakoek euren antxiñako erara eortziko dituzte oraindik ere, naiz-eta erroma-gauzez eurak inguratu.

4/. Egoitzak berriz ere lur zabalean jasoko dituzte,



EBRO ibaia: "Mantible" =tibia.



Gastei: AZTARNAK

El director de la excavación, Eliseo Gil -primero por la izquierda-, muestra un maniquí DEIA 21-1-1993 (Foto Luis Ciarrusta)

baserri edo borda-taldetxoan tankerara.

5/. Burni-lana erromatarrek dakarte eta nekazaritzamota geiago ere bai. (Burnia eta garla ezagutzen zuten lendik ere gurekin bizi ziran europatarrek).

—Eta, nun daude erromatarren ondakin oiek?

—Milagros Esteban andreak ("El País Vasco Atlántico en Epoca Romana". Donostia. 1991) dionez, kobeetan aurkitu diran erromatar ondakin oiek, gurtiak kosta-aldean daude, edo bestela, artzaien bide berezietan (naiz neguko, naiz udako) dauden leizeetan.

—Eta, ondakin geien, nun?

—Esate baterako, or daukazu Bizkaia'ko Ereño errian, Ereñuko-Arizti deritzan koba: an daude eortzita, zero erromanizatutako jendea. Gurtiak it ziran aiñagu-adarrez (cornezuelo del centeno) pozoituak. Bertan aurkitu diturte

oiñetako sandali erromatarrek, brontze-burnizko erastunak... Kontuan izan, Ereño'n daudela erromatarren garaiko marmol-arrobiak. Eta, ildako oiek, guztiak batera iltzeko, danok jan zuten ogi berdiña une berean; bear ba'da, bertako langille oiek, esklabu ere izango ziran.

—Eta, Bizkaia'n ba al da besterik?

—Gernika inguruan zegoen Peña Forua edo Ginerraldi izeneko koba eta bertan aurkitu zuten Isia-Fortuna'ren iruditxo bat; "santu" onek arrera aundia izan zuen Inperio osoan eta batez ere Hispania'n. Irudi au II'garren gizaldikoa da eta IV edo V'garrenean eortzia izan zan ildako baten laguntzarako.

—Eta, geiago?

—Ereño'n berriro: Ereñuko Arizti II leizea. Bertan aurkitu zuten berebiziko pixu-neurketarako balantza berezi bat. Orren antzekorik ez da beste bat, ez Euskalerra'n, ez Hispania osoan. Xeetasun aukeragertzen digutenez, Forua zan erromanizazioa zabalkundearen ardatza Bizkai'ko inguru onetan.

—Besterik, ba'alda?

—Gipuzkoa'ko kosta-aldean badira koba batzuek erromatan-en ondakiñekin: Amalda-koba Zestoa'n, Ekain eta Ermitia Deba'n, Jentiletzeta Mutriku'n, Goikolau Artibai-Barriatua'n, Lumentxa Lea-Lekeitio'n, Kobeaga Izpazter'en, Gerrandijo Ibarrangelua'n, Sagastigorri eta Santimamiñe Kortezubi'n, Aurtenetxe Gernika'n, Arenaza I Galdames'en, Getaleuta Yurre'n, Oialkoba Abadiño'n, Iruaxpe III Aretxabaleta'n, Anton Koba eta Aitxgain Oñati'n, Sastarri Ataun'en, Ezpilleta Aralar'en, Akelarre Leze Zugarramurdi'n...

—Eta, noizkoak dira ondakin oiek?

—Apellaniz'ek dionez, euskaldun-erromatar aldi onen denbora-neurri edo kronolojia, oso motza eta ximplea da. Bertan agertzen diran diruak, IV'garren gizaldia adierazten dute: Constantino Aundiaren Semearen garaia... Terra Sigillata'k berdin: IV gizaldiaren erdia eta ale batzuek V'garrenera luzatzen dira... Onela dio Apellaniz'ek: Kristo'ren ondorengo 330-410'ra dijoa aldi au. Bertan, brontzezko kultura darion gizaki euskadun batek, erromatar kulturaren ondakin batzuek artzen ditu...


—Eta, zer gauza erabiltzen ditu euskaldun orrek bere bizitzan?

—Ar-zuloetan naastuta agertzen diran beraren tresnak, aukerak dira: 1/ Sukarrizko lanabesak. 2/ Metalezkoak: bertakoak edo erromatarrenak, biak naasian. 3/ Kontxazko Cardium zulatua, aurreko garaien lekuko eta testigu. 4/ Ezurrezko lanabesak; batez ere, kirtenak, lendik ere baziranak. 5/ Bi eratako zeramika: bata errikoia eta zaarra; bigarren, erromatar Terra Sigillata eta erromatarren bestelakoa ere bai.


—Gauza gutxi?

—Bai, Ereñuko Arizti I eta Forua'ko Generraldi kendu ezkeroz. Brontzezko gauzak, IV'garren aldeiko erromata-

Navarra. Puente de la Trinidad de Arre (Ezkabarte) sobre el río Ulzama, en el camino de Santiago.



Trespuentes-Iruña. "Guinea": Ayunt. de Vitoria (Javi Berasaluce).



rrren ondakiñekin naastuta egoteak, badu agerpen bat: Leizeak aspalditik utzita zeuzkaten eta IV'garrenean berriro datoz kobeetara bizi izatera. Dana dala, garbi ikusten dan gauza auxe da: euskaldunak aurrekoen kultura-gaiak gordetzen saiatu zirala beti. Inperioaren egon-eziña eta beera-kada, uri nagusietan agertzen zan batez ere. Uriak beera doazen neurrian, doaz gora artzaintza, nekazaritza eta base-riak...

– Zergaitik etorri ziran berriro leizeetara bizi izatera?

– Inperioaren berakadak, iraultzak sortu zitun baztar guztietan: lapur-saillak, "bagauda" taldeak, soldadu alkar-teak... bakoitza here kasa okerkeriak egiten... Orra zergaitik, segurantza billa, biurtu ziran leizeetako egoitzeetara. Artzaintza oiñarritu zan sekulako eta olagintza ere bai... Kobeetatik aide billatu diran erromatarren ondakiñak, geigi ez ba dira ere, diruak izan dira.

– Eta, Forua'k Isis-Fortuna beste "santurik" ez al da emen?

– Irudirik ez ba'da ere, "santuen" arlosak, bai badira. Dei Manes (D.M.) etxeko jainkoak dituzu. Oietakoen lau arlosa daude: iru Lemona'ko Elorriaga'n eta laugarrena Gordexola'ko Zaldun. Beste iru aldaratxo eta arlosa bat, urak Atlantikora dijoazen lekuetan: Ivilia'ri Forua'n; Eguzki Garailleari (Soli Invicto) Ibañeta'n; Genik Pagi, Tokian

tokiko jainkoari, Hasparren'en; eta Atherratzte errian Herauscorrisca'ri, Txerri-arrari (aketzari).

– Besterik ez al da Kantauri-itxaso aldetik?

– Soli Invicto'rekin bat dator Mitra jainkoa eta onen izenean bazan Pirenee-mendiko gallurretan, ifaraldera, arzulo bat. Ivilia'ri buruz, berriz, esan oi dute, "ibilli" itz euskaldunetik datorrela; ala ba'da, orduan Lares Viales'en (Bideetako Zaindarien) antzekoa litzake Forua'ko Ivilia.

– Beste irudirik ez al da ezer?


– Larrosa, lauburu eta orrelako eguzkiaren irudiak asko dira Bizkai'ko arlosetan: Morga'ko San Esteban ermitan eta Emerando'ko Santa Elena'n, Boroa'ko (Amorebieta) San Pedro'n, Gordexola'ko Zaldun. Berreaga'ko gazteluan zortzi arlosa billa dituzte eguzkiaren orrelako ikurrekin. Bada gizon-irudidun arlosa Natxituko elizan; baita zaldun bat Oiartzun'go Andrearriagako arlosan ere...

– Ez diraz asko.

– Ezer gutxi... Beste Bizkai eta Gipuzko baztarretan ixiltasan aundia. Inguruan, gutxi eta barruan, ezer ez. Zer pentsate ote zuten Oiz, Izarraitz, Gorbeia, Aralar, Aizkorri'ko artzaiek? Esan bearra dago gañera arlosak elizetan aurkitu dirala: Forua'n arlosa bat eta Ivillien iruditxoak; Morga'ko San Esteban elizaxoan, onen aoiñarrietatik batzuk atera zituzten, baña gaur iru daude bere ormeetan;



Muruzabal de Andión, Mendigorrrá (Nay.). Pozo del sistema de distribución de aguas de la ciudad romana de Andelos. ANDION



Trespuentes-IRUÑA (T. Alfaro). Rep. J. Berasaluze

Emerando'ko Santa Elena ermitan bat; Boroa'ko San Pedro ermitan beste bat; Lemoa'n San Pedro ermitan, bederatz; Galdakao'ko Obispo-etxean, bat; Zaratamo'ko San Lorenzo ermitan, bi; Arrigorriaga'n Abrisketa'ko San Pedro elizan bi; Mungia'n Mesterika'ko San Lorenzo ermitan lau; Natxitu'ko elizan bat; Zegama'ko San Pedro elizan bat; Oiartzun Andreungua ermitan bat; Hasparren'go San Juan Bautista elizan bat; Zuberoa'ko Atherratzte'n Santa Madalena ermitan bat...

Elizetatik kanpora ez al daude?

— Bai bada bat edo beste: Jainko'n bat; Zaldu'n beste bat; Aizkorriko Olza txabolan bada bat Araba'tik ekarria; Ondarribia'n beste bat, ura ere kanpotik ekarria... Ikusten degunez, geienak elizetan gordeak. Berdintxu gertatzen da Prehistoriako beste garaietako leizeetan ere: geienak daukate bere inguruan eliza edo ermitatxo bat Santimamiñe'k bezela (Santi Mames ermita) Urtiaga'k (Salba-

tore ermita) eta abarrek... Bizkaia eta Gipuzkoa'n ez digute arlosa askorik utzi erromatarrek; bai, ordea Araba eta Naparroa'n...

ARRINDA'TAR ANES

~...
 ALAIV SI
 AR~ENT
 ALA XX
 HISSTL



AITA SANTI EUSKALDUNA

(3N. EGUNA)

JAUN-ANDREOK:

Zuen baimenaz erdal bertso baten zatitxo bat irakurriko dot:

No es donostiarra ni bilbaino,
tampoco navarro ni alavés,
tiene a orgullo ser bizkaino
y hermano de nuestro Sabino.

Con una cartera bajo el brazo,
llena de papelotes sin cuento,
viene de su añorante regazo
unas veces suave como unguento
y otras dando tal cual estacazo...

Au ete da Aita Santi Onaindia nik gaur billatu gura neuk gizona?

Bere billa nabil.

Bertso oneik 1939'ko Azilla'ren 28'koak dira.

Laburdi'n, Biarritz uriko Ibarritz auzoan egon "La Roseaie" euskaldunentzako ospitalean irakurri ziran ango jai baten.

Bederazi kazetari euskalerriklo kanjeatu, "trukatu" ginduzen urte orren asieran, 1939'ko Urtarrilla'ren 4'an, eta gurea izan zan ain zuzen euskal gudaketa ondoren egin zan azken trukea. Errupublikarrak baituta eukezan Zaragoza'-ko beste bederatziz izparkarien ordezkari askatu ginduezan, Frantzetik zear Barcelona'ra joateko baldintzetan. Baña ain zuzen egun areitan Barzelonatik tatarrez igeska asia zan jendea, eta egun batzutan Endaian geratzeko baimena bialdu euskuen. Bitartean "La Roseaie"-n mediku azterketak egitekotan. Zortzi egun baiño len an operatu ninduen. Nik ez nekien gaixo nengoanik, baña osagilleak ala esan eta geiago pentsatu bank, kiromanora joan nintzan. Arrezkero ez dot biotz-errearen garratzasunik niregan igarri,. Eta antxe, urte berean egon zan jai baten irakurri zituen bertso orreik bertako baten omenez.

Aita Santi, garai aretan, uste dot Sevilla'ko Carmona'n egongo zala, espetxean beste ainbat euskal abade eta amarran bat fraileekaz... egin zituen gudarien espirituarekiko serbitzuekaitik.

Beraz... oraindik Aita Santi gaztetxo zan, ezta?

Alaz eta nik billatu bear. Aita Santi euskalduna billatu bear.

Ori da nire gaia.

Adolfo Larrañaga portugaletetar olerkariak erderaz egin zitun bere olerkiak, nai eta abertzaleak izan. Euskertuta irakurriko dot bat:

Euskalduna!

Biraorik ezin leiken izkuntzaduna,
emakume baten antzo, misterioz beteriko izkuntza,
aldare bateko dolmena bezin zarra,
izan aditzaren antzera biztutzallea,
tolare bateko ardauaren espiritua...!

Ortik asi bear ete naz Aita Santi billatzen?

Aita Arrupe'ren bizitza irakurten danean, bilbotar seme ospetsu aren izakera ezagutzen da here itzaldietan, bere jokabidean, kontzientzia ia estutzen daben unetan be, here zintzotasuna eta jatortasuna nabariak dirala.

Aita Arrupe ez zan aspertuten bere itzaldietan, here apostoladutzan, bere maisu erakusketetan, bere lagun eta anai arteko jardunaldietan.

Eta here ingurukoak nekatuta, etenda ikusita be, berak oraindik naiago izango eban kotxe ibillaldi bat, egazkiñeko loaldi bat, urrengo egunerako here baikortasunari amasa barriztu eta eutsi al izateko, here alaitasunari bizi barri bat suspertzeko.

Aita Arrupe bilbotarra, bizkaitarra, euskalduna... Jesusen lagundikoa zan, josulaguna, jesuita. Ain zuzen lau gizaldi aurrerago euskaldun batek sortutako lagundikoa.

Espiritu santuak lagundu egiten dauala, esaten da, bateoan iñoiz izen egokia ipinten. Arrupe'ri Pedro ipini eutsoen izenat. Arri. Jesuiten langundia, Eleizaren arri edo eusle izaten alegindu zala urte ugaritan jakinda; eta Arrupe izango zala bertako general bakararra kontuan artuta, ez al dago or aize berezirik, norbaiten putsik?

Bere biografietan irakurten da etxean izen euskaldunago deitzen eutsela: Peru, Perutxu umetan.

Jesuitak maite dabela, esaten da, barruko otoitza. Eta Arrupe'ri, egun askotan, lanez ittota, burua tente euki ezinda ikusten ebenean, iñoiz itanduten eutsoen:

— Nundik ataraten dozu denbora otoitzean jarduteko?

Orrelakoetan berak erantzuten ekian: A, on leentasunen ardura da. (Es cuestión de prioridades).

Aita Arrupe Bilbaon jaio zan 1907'ko Azillaren 15-ean. Aita Santi Onaindia, Amoroto'n, 1909'ko Martiaren 24'an.

Urte ta erdiren aldia.

Aita Arrupe irakurtean ba dago beste oargarri bat, euskal izateari ikutu leikiona eta Aita Santiren karakterra eza-gututa ondo datorkiona.

Jakiña da jesuitak gora-bera asko euki zituela euren laugarren botoari buruz Aita Santuagaz.

Eta bein espainarrak batuta egozala batek tartetik esan el eban: Ebanjelioan esaten da usoen antzeko otzanak izan bear gareala, baña baita sugen antzeko zurrak, (prudenteak) be.

Eta Aita Arrupe serio jarri, bera gitxitan jarten zan lez eta erantzun eban:

—Ba nire aldetik naiago dot usoa lez otzan izan.

Eta ben-benez geitu eban: Lagundia, Jesuiten lagundia bertako, Generalak zuzenduten dau, ez kardenalek.

Orrelako autuetan ebiltzala, Arrupe'k oartu eban italiar egunkariak bere aurka zirikatzen agertu zirala, jesuitak menpetasunari uko egiten eutselakoan.

Norbaitek itandu eutsan:

—Lorik egin zendun orrelakoak irakurrita?

—Egingo ez neban ba? Beti lo egin izan dot. Sekula ez dot bakerik galdu. Nire kontzientzia baketsu daukat. Ez dakit erratu ete dodan. Baña nik beti egin izan dot Jaungoikuaren aurrean egin bear nebala uste nebana, nire bearkuna zala uste edo pentsaten nebana.

Santi ezagutu zenduenok ez zeuntsoen iñoiz entzun bizitzan euki zitun egun latz eta gordiñetan be: Nik nasai lo egiten dot. Neu naz erantzun bear dodana, eta antzerako erantzunik?

Espetxe, Kartzela eta bateratze-zelaietako denboretan, gure gerratearen amaieran, egon ziran Ameriketara bialdu zituen fraile jatorrak... euskaldunak ziralakoko. Ori karmeldan-ak, frantziskotarrak, jesuitak eta abarren kontu izan zan.

Jakiña da Aita Santi, Kantabriako espetxe nagusian egoala, Santoña'ko Dueso'n egoala, karta bat idatzi eutsala garai aretan san Joakin de Navarra deitzen zan karmeldarren "probintziako" buru, pribintziala zanari bere egoera salatuten.

Eta Probintzialak bereala erantzun eutsan... orrelako erantzun bat artzen beia jota lagateko aiñako erantzuna, fedea be galtzeko erantzuna. Zer? Ba ondo merezia ebala kartzela, karmeldar soiñekoa jantzia laidotu, zikindu ebalako.

Ba dakizue Probintzialak zer iñotsan? Euskeratuta auxe:

"Kristogan nire kutun eta onesgarri ori: Ordua zan nik ain zintzo eta ziñezko uste neban eta orain kontuan artzeko lako dala uste dodan Aita Santiago baten zerbait jakiteko.

Seme ondatzaillearen irudia ondo dago emen: obeto egingo zendulako ebanjelioko seme onaren ereduari jarraitu etxean geratuaz eta abenturetan sartu barik egonaz. Orrela urten dautsuez gauzak eta orain emen nago ni eskuek lotuta, salbabide bat jaurtiteko be.

Mingarri da, erlijioko bizitzarako orrelako bide-galtze baten jaustea, gure jantzi deunari ainbeste kalte eragiñaz. Ez dago bide bakar bat baño: damutasuna, otoiña eta garbaiketa baño, parkamena lortu nai ba da.

Bedeinkatzen zaitu, besarkatuaz, Jesus'egan zure lagun on, Aita Sergio."

Norbere nagusiagandik orrelako erantzun bat artuta zer egingo leuke askok?

Baña Santi'ri gogoratzean, itanduten ei eutsen: Eta orain?

Eta Santi'k: Nik nasai lo egiten dot. Neu naz erantzun bear dodana. Ez daukat kontzientziko damurik.

Santi'k ba ekian bera jatorra zala. Ez dauka zetan arrotu autortzen.

Irakurri egizue bere lamiñak liburua:

"Armiña, Amoroto aurreko ibarra da. An ba eukezan lamiñak euren kobak."

Santi berberak geituko dau: "Bean agiri da illunabar ganduten, Ballastegi ibarrera doan bidea. Moko, Txopite, Ikan, Errota, Enparan, Sarkonbide, Olan eta besteak, base-rrietan eder. Atxurra gaineko bide-kurutzean, antxiñako arrobi artean agiri da Atxuriarte baserria (Bere etxea), gizon jatorren sorleku.

Eta zer da jatorra? Arrokeria al da bat jatorra dala esatea? Aita Lino irakurten ba dogu, jatorra = castizo dala erantzungo dasku. Euskaldun jatorra = perfecto, puro, au da, benetakoa, zuzena, zintzoa.

Esandako Aita Sergio nor zan?

Luis Baraiazarrak argitasun pixkat emoten dasku idatzi baten: Aldi aretan, aldi arrisksu aretan, diño, kartzela eta premiña larritan egozan fraileei laguntzeko ustetan, euren aide zerbait egingo eban asmoz, Aita Sergio on aukeratu ei eben emengo karmeldarrak euren Probintziazat, au da, euren burutzat. Gradu andiko militar baten koiñatua ei zan.

Onaindia'tar Santi, 1935. Ordurako Aita Santi, euskal zaletasunean indartuaz batera, berez abertzaletu zan.

Konbentura sartu zanean, orduan askoren oitura zan lez, eskola apur bat ikasiaz batera erdera be ikastera joan zan edo eroan eban aitak, beti be Jaungoikoaren deia artu ezke-ro, bertan geratzekotan.

Santi'k, dirudianeaz, Jaunaren deia igarri, entzun eta makurtu zan, baño esan lei bertan zaletu zala euskaldun iza-teak eskatzen eutsazan bear izanak sakontzera. Euskeran al bestean zaletu eta alegindu zan eta orrek, berez eroaten eban abertzaletasunean bizkortzera.

Jakiña da konbentuetako eta seminarioetako ikasleen artean gar bizia egoten dala ikasketetatik alboko beste liburuak eskuratu eta irakurtera, eta areitako biblioteketan ikas-le guztiak danetarako baimenik euki ezarren, geienak eukiten dabela alako sagukeri bat esango neuke nik, ango arazetan liburu ez ezagunak arakatu eta irakurteko gurari ase-gaitza.

Eta erdera ikastera joan zan arek, amorotoar gazte arek, ez ete eban iñoiz aukerarik billatu eta artu orrelakoetan egoten diran liburu bakanak irakurteko, eta ez ete eban iñoiz billakatu karmeldarren liburutegietan etxeko ziran eta diran Jesus'en Terese eta Gurutzeko Yon'en liburuen artean, Juana Asbaje edo antzerakoan libururik?

Nor zan Juana Asbaje? Euskaldun bat eta mexikoar inditar emekume baten alaba. XVII garren gizaldian Jainkoak jakin zetan Mexikora joan eta an bizi zan bergarar langille merkatari eta mexikoar odola erabillan kriolla baten alabea, lekaime (monja) sartu eta Sor Ines de la Cruz'en izena erabili eban monja idazle bat. Eta here garaian au erderaz idatzi baño euskeraren aide lotsa eta errespetua sartu nairik eta euskera mifiez arpegi emoten jakin eban monjatxoa:

Nadie del vascuence murmure,
que juro a Dios eterno

EUSKAL-ASTEIA

que aquesta es la misma lengua
contada de mis abuelos.

Neska a 1651'ko Azillaren 12'an jaio zan.

Eta orrelako pitxiak ez al zituen fraile zarrak maitero gordeten? Eta orduko giroan fraile gazteak berotzen?

Geiago. Orduko giroa ezagutzeko 1935'ko Bagillaren 16'an Donostiko "El Dia" egunkarian "Aitzol'en artikuloko bat agertu eban.

Lan orren mamiña au zan: Bilbao abertzale iturria ba degu, euskeraren piztutzea ere ortik letorkiguke, abertzaleak eredu Arana Goiri tar Sabin genduke.

Euskera eta abertzaletasuna bereizten dituana, ez da abertzale. Abertzale askok, ordea, bereizten dituzte, ez agian esatez, egitez baño. Nola liteke bestela bizi guztian abertzale agertzen danik euskera ikasteari ordutxo batzuk ez eskeintzea?

Euskadi guzian, pozaren eztenaz ernaituko litzake bilbotar abertzaleai, batzarretan, euskeraz entzunaz. Orduntxe bai, egizko askatasuna urbil gendukela!

Artikulu au zetatik etorran?

Ba Abandoko Uri Buru Batzarreko lendakari zan Julio Yankee osagilleak itzaldi baten esan ebalako, itxaropena ba eukala Bilbaon igarten zan abertzaletasunari esker, laster batzarretan Bilbaon gure aurretikoen izkuntza erabiliko zala.

Ori Bilbon.

Baña zetan ebillan erdera ikastera joan zan amorotoar gazte? Erdera ikasten?

1926 urtean, "Euskalerrriaren alde" aldizkarian "Euskal Esnaleak" eratutako idazleentzako leiaketa baten barri emoten zan.

Aldi aretan Santi'k amazpi urte eukazan. Eta ara nun agerten dan leiaketa aretara aurkeztu ziranen lanen artean eta laugarren saria irabazitakoa zanaren agerbidez, lan bat: "Euskal idazleen uts eta okerrak" deiturako bat. Zein zan egillea?

Anai Santi, karmeldar fraile ikaslea.

Santi, amorotoarra, euskalduna, euskal literaturari begira abarkak jazten asia zan.

Aita Santi ezagutu zenduenok, txapelagaz ezagutu zenduen, ezta?

Or euskaldun izatearen ezaugarri bat.

Baña txapelaren erabilkerak bere test psikologikoa daukala, esaten da.

Jose Mari Bereziartua'k "Nuestra Boina" deitura liburu bat idatzi eban.

Pío Baroja'k egin eutsan sarrerakoa, itz-aurrea deitzen dana. Eta an beragaitik diño escritor de raza dala, txapelaren edestia eta goraberak ain zeatz emoten dauzalako.

Txapelak taxua emoten dautsa gizonari. Txapelaren erabilkerak erakusten ei dau bat zelako dan.

Liburu orretan bederatzi erabilketa ezbardin aitatuten dira, txapelaren bederatzi agerpen, flash. Zelan erabili ala iruditu.

Ara:

- a) egillea.
- b) sentzu on, ederreko.
- c) Benazko, egitazko.
- d) Saltzaille, etoi, Judas.
- e) Ardurabako.
- f) egiztapen bagako.
- g) fidakaitz.
- h) arro.
- i) zentzudun, zuur.

Iñoiz ikusi ete eban, Aita Santik txapela jazteko ordua eldu jakonean, Arana tar Sabin'en txapelagazko irudia?

Esaten da Sabin ez zala txapelandi izan, beste here denborako politika bateko batzuen itxurarik ez artzearren, nai ta bere denboretan Bilbon txapel andia erabiltea oiturazko izan.

Nik esango neuke txapelak, beste alde, ba daukala zerbait, bateri zela-alan ten egiten dautsan zerbait ... ez dakit zelan esan, zeaztu.

Ba dakizue trapenseak iroletara joaten diranean, txapela jantzita edo kaputxa buruan sartuta joan bear izaten dirala, euren ordenako aginduz?

Bein Santi Irazusta'k idatzi eban txapela buruaustedun gizonetzkoentzako jantzi berezia zala; here kerizpean ideiak geldi-geldi eta samurki ugaritzen dirala eta bakoitzak mundua ikusteko daukan ikuspidera alkartzen dirala ideia orreik.

Or Santi euskalduna beti here txapelagaz, euskaldun ezaugarri, or Santi frailea eta txapelduna, or Santi Euskal elertiko gixurena, langille amorratua.

Larrea'ra zoazenetan, konbentu aurretxoko egal baten, iturria aurrean dauala, here txapel eta guzti brontzean irudituta Aita Santi ikusten dozuenean, begiratu egiozue lotsaz, zintzotasunez, maitasunez. Errespetua sartzen dau berak daukan txapelak, aize txarrak etorrita be kenduko ez dautsen euskal txapelak.

Orrelaxe ezagutu gendun Aita Santi euskalduna.

Juan Antonio Mogel'ek bere Peru Abarka liburuan euskalduna iruditzen dauan lez: Abarkak (sandaliak) oiñetan, txapel bat buruan, gerrestua gorputzean... au da nire apaindura guztia. ("Peru Abarka" 43-12).

PRIJORE EUSKALDUNA


Aita Santi'k menpetasunez artu eta bete zitun espexetarik etorri ondorengo atzerriratzeak eta agindutako zereginak.

Hoz de Anero, Logroño eta abarretan ibili zan lenegotan.

Baña biotza Euskalerrian erabillan.

Geroago, berak jakingo eban zegaitik, Euskalerriko konbentuetako prijore izatea atsegiñez artzen eban.

Nik esango neuke, eta atzamarra jokatu be bai, here euskal zaletasunerako garrez orretarako aukera geiago euki-tearren izango zata.



Cuadro de diversas muestras del doble grupo de superioridad-inferioridad, para el test psicológico de la boina:

a.— Activo = Egille, langille.

b.— Estético = Sentzu on, ederreko.

c.— Sincero = Egita_ko, henazko.

d.— Traicionero = Saltzalle, etoi, Judas.

e.— Insensible = Ardurahako.

f.— Falto de control = Egiztapen hagako.

g.— Desconfiado = Fidazkaitz.

h.— Presumido = Arro.

i.— Moderado = Zuur; baketsu.

Ordenaren kalte barik, geiago, ordenari ospea emonaz euskal lanean sakonago jarduteko.

Karmeldar jantzirik ez eban sekula bastertuko. Lenengo fraile, gero gerokoak.

Iñoiz zirikatatu eta erantzuten ekian: Asko nabillela? Ez arduratu. Praile zarrak ba dakie prijore barik be biziten.

Kapituloetan, bata onako eta bestea arako, laster jakiten ziran izendapenak, eta iñoiz geratu zan "aidean"... eta biaramonean edo ordu asko igaro barik zabalduko zan prijore jarraitzen ebal.

Itandu ezker: Santi, olakoetan fraileak pozik geratzen dira?

— Fraile zarrak oituta dagoz denboraleak gainduten, erantzuten ekian.

— Eta prijoreak?

— Paul'eko Bixente deunak esaten ekian: Danekaz ondo konpontzeko begiak itxi eta besoak zabaldu bear zirala.

Eta ori egiten neban nik.

— Erreza da ori?

— Izango ez ba da? Gañera zenbat eta fraileak bareago,

ordenarentzat aberatsago eta euskerarentzat mesede geiago.

— Zelan ori?

— Ba olakoetan egiten dozulako lanik gogotsu eta ugarrien. Eta Jon Gurutzeko, Teresa deuna, Teresetxu eta abarren euskeratzeak gure eleiztarren mesederako besterik ez dira. Azken baten euskera eta Ordena alkartuta.

Sarri ikusten zan Bilbo nai Donostiko liburu dendetan bere saltsan.

— Liburuak konbenturako mesede dira?

— Izango ez dira ba? Konbentuak beti izan dira liburu iturri edo sorleku.

— Eta saltzerako tratuak?

— Ni euskal tratulari naiz. Geienetan saldu ez dodaz egiten; trukatu bai.

— Trukatu? Bizi pixuan ala kanalian?

— Askotan begire. Nire sormeneko liburuei urteera emoten alegitzen naz, zorrik ez egitearren eta konbentutako liburutegietako arasak ornidu, trukez. Liburuak liburu ordez trukatu. Fraileentzat mesede eta urrengentzat aberastasan.

ALBISTEAK

Fraileak pozik ikusten nabe liburu barriekaz etxera natorrenetan.

Orra Aita Santi'ren bizitzako flash arin bat.

Beti alkarri zirika, ez tirrika. Atsegin izaten eban zirika-ko eta umorezko jarduna.

OLERKARI EUSKALDUNA

Rene Gallop'ek idatzita laga eban euskalduna espanetan abesti bat dauala jaioten dala. Eta abesti artean asi, olgetan ibili eta dantzan ikasten dauala; imnoekaz otoi egiten dauala eta here abestiak benetan eder eta egitsuak dirala.

Orrela etorri ete zan mundura Atxuriarteko seme zarrena?

Edozetara be, gure artean eta gure elertian here eragiñak euki dauan sua eta garrantzia ezagututa, esan geinke gaur ezin leikela euskal literaturari buruz itz egiten Aita Santi aitatu bank laga.

Sortzalle on eta aberatsa izan zan.

Itzultzalle zintzo eta egokia.

Olerkari guren eta arrigarria.

Beragaitik ezin esan lei olerkarizat agertu diran batzukaitik Marin kritikariak esaten ekianik: Arrigarritasunik sortzen ez dauan olerkaria, zaldiak garbitzera joan bedi.

Olerkari fiña izan zan Aita Santi. Itzekaz edertasuna agertzen jakin eban.

Olerkari izatea gauza bakanak polit eta txairo esatean dagola uste dabenak ugari billatu daikeguz basterretan.

Izan be olerkari izatea goitarra da.

"Lauaxeta" zanak Sabin Muniategi'ren "Goiz Aize" agertzean (1936'ko Otsallean) itzaurrea egin eutsanean au esaten eban: Olerkariak esku artean zer daukan? Udabarrik ederrenaren usaiñak atz puntetan geratu yakoz. Beretzat Eder'ak autu dauanaren bagietan argirik biziyenak dagoz. Artotzaetan aixe mia ibili dabillan legetxe, olerkariaren aapal artian be goiko Arnasa dabil"

Orixe da olerkari izatea. Olerkariaren zeregin bakarra: itzakaz edertasuna agertzea.

Ain zuzen orixe da baita Aita Santi'ren olerkietan nabariena. Igarten da Gurutzeko Yon deunaren olerkiak benetan bizi izan zitula.

Ortik kanpo bera olerkari zalako, olerkarien kritiku zeatza be izan zan.

Euskerazko maitasun-gaidun eun olerki onenak aukerata liburu bat agertu ebanean, Santigaitik au diño aurkezpenaren egilleak: Euskal literaturaren edestia ondo ezagutu eta olerkari on baten dagokion on-egitearen eredu lez agertzen da Aita Santi lan onetan.

Bear ba da elburu zabalegia artu eban: Eun. Euren artean nai ta ez bata besteagandik alderantzi bat igarri bear.

Baña ez gaitzen zirikalari.

Berak, eredu biozkor bat erakutsiko dausku bere olerki samur baten:

Izkilluz

ez su-egin, eiztari.

Bide ertzean

dot maitea kantari.

Nik urteen urteetan ezagutzeko zoria euki neban onek, here argazki bizia ikusten dot olerkitxu orretan. Biziaren ederrik ez daigun garrastu, alboan bizia maitetsu kantari dogun artean.

Gaurko giroan be ez ete leuke indarrrik olerki onek?

Santi'ren lanak gogoratzean, gogoan euki bear berak urte latzetan asi eta ainbat urtetan eratu, zaindu eta ospatu zitun Olerti egunak.

Euretara lenengotatik batzen asi giñanok, ezin aztu giñei lenengo urteetan, espetxean lez gerabillazan gure euskal maitasunak zelako aize irri bizigarria artzen eben eurretan.

Arek bai izaten zirala benetako euskal egunak!

Aita Santi it zala jakin nebanean, Jose Artetxe'ren Lavigerie kardinalaren bizitzari berrikustaldi bat egiten nebillan.

Lavigerie'k here azken ordua igarri ebanean, beretar Aita Zuriei esan eutsen: Nire besoak eta nire oiñak zaartuten duaz, baña nire biotza ez da sekula zaartuko.

Ain zuzen Euskerazaintzakoak Deba'n egiteko oitura dogun euskal batzar baten ondoren, it baño illabete aurretatuago, Santigaz batzarra amaitu eta Ondarroa'ra joan gifian.

la batzar egun guztietan egiten gendun ostera bardiña, berak Markiña'ko Meabe auzoan bere jatorrikoak besarkatzen joatea nai izaten ebalako, eta orretan pozik laguntzen eutsalako bere adiskide Paul'ek. Guk kafetxu bat artzen gendun artean, berak ez eban kotxetik urten nai izan. Kosta egiten jakon belaunen jokoa erabiltea kotxetik urteteko. Eta gure iribarreak ikusi edo oartutean esaten euskun: nai zenduke zuek biotza nik lez eukitea.

Gogoratu Lavigerie kardinalak zer esaten eban: Nire biotza ez da sekula zaartuko.

Zer esan gura eban orregaz? Biotza lanean erabillala, beste guztiak zortuta eukiarren? Maitasunik ez dala agortzen?

Ez ziran egun asko, lenengo Larreatik Galdakano'ra eroan, ango gaxotegira, eta andik, zeregiñik ez egoala-ta, Gasteiz'era eroan ebela, karmeldarrak ango konbentuan dauken gaxoterira, an ondo zainduta azken arnasa emoten laguntzeko asmotan.

Ara joaten ziranei agur egiñaz, beti Iez berea eban irribane jatorrez, barbarik ogutzi ezinda, atzaparrak goruntz zuzenduaz, ba noa esan nairik, zerura noa esan nairik agur egiten inarduten ebala eta alaxe azken arnasa emon ei eban.

Lavigerie kardinala be, bere atzaparrekin kurutzak egiten il zala, esaten da liburuetan, bedeinkapenak emoten.

Bata ta bestea gizon jatorrak, setatsuak ziran euren egitetan. Lavigerie Aita Zurien sortzaille ta erabiltzalle, ama euskaldunaren semea. Aita Santi karmeldar nabar, "Atxuriarte"ko gizon jatorren arnasaz.

Lavigerie'k ni euskalduna naz eta euskaldun lez setatsua, bear danetan setatsua esaten ei ekian.

Santi'k be, euskaldun jator lez, euskaldun setatsu ekin eutsan bere asmakizunetako liburuetan.

Lavigerie'n bizitzan irakurten da, Iparraldeko Larresore'ko seminarioan ikasle zala, bere musikako irakasle zan Hemlet irakasleak bere batuteagaz zartada gogor bat emon eutsala, eta Lavigerie'k here txirula apurtu ebalira irakaslearen buruan.

Eta sekula gorrotorik ezagutzen ez eban lez, ekintza orrek alkarren artean munduko lagunik onen lez alkartu zitula.

Nik ba dakit Santi'k, iñoiz here lagunik andienagaz txirristadaren bat eukiarren, minuturik ez ebalira galtzen lagunari bere laguntasunik oparoena eskintzen. Orretan be, Santi, biotz-zabala zan, biotzari maitasunaren indarririk galtzen lagaten ez eutsana.

Aita Santi euskalduna...
Euskerari eta aberriari umetatik eskeiñi,
mendietan here bizia maitasunaren arriskuan ipiñi ta
odola ixuritzeko arriskuei aurre egin,
eta espetxetan eskinta on ukatu barik iraun,
konbentuan eta kalean eskaluparioaren azpiko gurutzeari
laztanka
here sormeneko liburuak noiz nai erabili bizi...
Gizon a zer zan?

Gogoratu gerratean, "Kirikiño" gudataldeko kapillau zala, here amari bialdutako olerki biozkorra. Bizitza guztirako maitasuna eta aberriaganako ziña ziurtatzen dauana:

Amatxu laztan, ez nitzaz negar,
zotin orreik irato;
kutuna zaitut biotz biotzez
baña Euzkadi guztion ama
oraindik maiteago,
oraindik maiteago.

Euzkadi eder, maitezko lore,
neure odol gorria
zeure aldan dixurit ori,
il arteraiño zeurea nozu,
or nire oparia,
or nire oparia.

Eta opari ori barriztuten bizi izan zan, Gasteiz'en 1996-II-1 l'an here arimak zoriondunen egoitzara egaz egin arte. Zeiñek esan Aita Santi euskalduna, abertzalea, eta euskaldun jatorra ez zanik? Gure ospea eta gure eskerra berrari.

ZUBIKARI tar AUGUSTIN

RITA SANTI TA EUSKALERRIA

Erri eder bat zendukan aurrez
dana orlegiz jantzirik,
ain zan kutuna, ain zan maitia
ezeren pare bagarik;
nora nai adi ona erion
biotzaren barrenetik
zure begien bizi artean
ez egon ama oberik.

Gauz eder asko daukaz Euzkadik
bat beren izkuntza gurena
jakituriaz bete beterik
burutik eta oiñera;
zuk begi onez jakin zenduan
euskeratzen here ederra
esker aundiaz liraindurikan
erti gorengo erara.

Euskalerria jorratu zendun
elertiz eta itzagaz
jaki onenak anai artean
gozaro zabalduagaz;
erririk erri ibili ziñan
Jaungoikoaren graziaz
Euskaldunari, beti, on eiten
asmo ta gogo onenaz.

PAULIN

≡ ≡ ≡

TXOMIN

ZUBIRI'tar IÑAKI'ren ELEBARRIA

EUSKERAZALEAK ALKARTEAK
ARGITARATUA

**BILBAO'KO UDALAREN
BABESPEAN**

EUSKEREA EGUNEROKO BIZITZAN

Galdera bat egin nai nuke eta auxe litzake.

Euskaldun guziak, zergaitik ez gera euzkaltzaleak?

Batzuk, badirala esango dute eta egia da, baña... zergaitik ez gara danok? Emen dago kokka.

Norbere izkuntzaz itz eginez, maitetasuna egertu bear bada, euskaldunok ez gera gorengo malletan agertuko, noski.

Asko gera euskera maite degula esaten degunok, on orrela izanik, zein gutxi entzuten den gure izkuntza errietan! Zer gertatzen zaigu orduan, lotsa gaude barra-barra leku gizietan erabiltzeko?

AMA goraltzeko eta ago batez maite dauala agertzeko gauza ez dana, ez da seme edo alaba egokia, JAU-NAK eman zigun gure Ama euskera ain tzit garbia, txukuna eta maitagarria izan bear lukena.

Euskeraren jabe danak, ez dauka lotsaz bere gorputz barman izkutauta edukitzerik, kanpora zentzun guziaz ateriaz erakutsi bearra dauka.

Erri bezela irauin nai badegu, derrigorrez euskeraren jabe egiñaz erabilli bearra daukagu. Izkuntza bat baiño geiago jakitea, pozgarria eta jakintza aberasgarria da, baña norberarena bazterturik dabillena, ori, etxe kalte eta salduna degu.

Gurasoak, zeuen aur txikiei jaiotzatik euskeraz egiozue eta oiek inguruan dituzuela, lagunuen artean gurasoak erderaz ari bazerate, aurrak, zer egindo dutela uste dezue? Oiek ere, euskera baztertu eta erdera erebiliko dute.

Gurasoak, irakasle eta ikastoletako andereñoak, ez dezute naikoa ikasleei euskeraz irakastea, orrez gain, euskerarentzat maitetasuna irakatsi bearrean zerate, bestela, alper alperrik gabiz, neska mutil moltzoak, ikastoletatik eta euskal mezaren ostean, ea danak erderaz itz eginez doaz eta baten batek esaten badie, "erdeldunak" ote diran, danak, deadarka ekiten diote euskaldunak dirala esanaz.

Nun dago orduan euskalzaletasuna? Negargarria ene Ama. Bide onetatik, urte gitxi barru, Euskalerriko sarre-retain iragarkiak ipintzeko eran izango dira esanaz: "Aquí existió un pueblo Vasco que murió por propia desidia".

ARTOLAZABAL' dar ILARI

EUSKERAZ

Euskera sortu eben
eder bezela
gure mendietan;
euskeraz mintza ziran
emengo biztanleak
euren sorreretan.

Gogoak eta lurra
elkar so ebenean,
itzez asi ziran,
lurra bere aldetik,
gogoak berenetik,
izkuntza sorreran.

Nundik etorri ziran
misteriozko asabak
bizia maitatzen;
Euskalerriko lezak
izan ziran babesak,
arbasoak artzen.

Lezea ta mendia,
sasiak ta arkaitzak
elkarri begira,
nor izango ete zan
pistien nagusia
buruzko arira...?

Antziñateko arek
landu eben lurra,
eratuz bizitza;
ziran lez sortu eben,
maitasun arrigarritz,
euskaldun izkuntza.

Emen, egoan dana,
pertekide izan zan
endaren bizian;
izetik dator ura
itzaren jariotan
zingira garbian.

Emen, elkartu ziran
egazti, pisti, lagun,
lurraren giroan;
gizona zan nagusi
pistiak menperatuz
euskera gogoaz.

PAULIN

1996'KO EUSKERAZALEAK'EN EKINTZAK

Gabon Jaun-andreok

Urte guztietako gure ekanduari jarraituz, igaz egin-dako ekintzen azalpena emotea dagokigu batzar onetan.

EUSKAL IKASTAROA

Oi dogun lez, lengo Urrila'n asi genduan aurtengo euskal ikastaroa. Urte asko igaro dira gure erakundeak euskera-irakaskintza asi ebanetik, eta pozgarria yaku egiztatzea, gure ikasleak zintzo-zintzo euskera ikastera etorten jarraitzen dabela. Onek adoretzen gaitu aurrera joateko, eta aal doguzan bide guztiak ikasleen aide ipin-teko.

AITA SANTI ONAINDIA

Benetako barru-miñez autortu bear dogu, lengo urtean utzi gaituala Aita Santi Onaindia karmeldarrak. Asko idatzi da berari buruz, agirian ipiñiz bere nortasuna ta euskerearen aide egin dauana, eta asko ta asko idatziko da oraindanik, gizandi onek gure aberriari emon dautsana goratuz. Euskotarrok ez dogu iñoiz ordaindu aal izango urteen bidean euskerearen aide berak egiñikoa. Aren liburu ugariak, olerkaritzaren aide artutako aalegiñak, idazlanak, eta berak olerkari tez utzi dauskuzan ainbat eta ainbat olerki bikain, lekukoak dira, beti gomutarazoteko zelako gizon andia, gain-gaiñekoa galdu dogun.

Aren bikaintasuna goratzeko, Euskerazaintza'k, eta Euskertazaleak'ek goratzarre bat atondu genduan Larrera'n Zornotza'ko udalaren laguntzaz Urrila'ren 19'an, onetaraxe: Lenengo, eleizkizun bat neskatil-abetesbatz batek edertuta. Jarraian, lekaidetxe'ko ormaren aurrean eraikia izan dan bere arrizko irudia Olazar'tar Martiñ'ek, Euskerazaintza'ren Lendakariak, estalgetu eban. An batu gintzazan ikusle ugarien aurrean. Irudia Lertxundi'tar Mikel Angel'ek, irudigilleak egiña izan da. Karmeldar batek irudia bedeinkatu eban, eta jarraian, dantzari batek auresku nagusia, maisuki eskiñi euskun. Gero Olazar Jaunak, entzuleek lagunduta, lerro batzuk irakurri ebazan Aita Santi'ren nortasun eta ekintzak agirian ipiñiz. Jarraian, Legarreta'tar Asier'ek, bertso-esateari asiera emon eutsan, gero Puxana'tar Basilio ta Solozabal'dar Paulin bertsolariek, Aita Santi'ren gomu-

teari euren ertia eskiñiz. Goratzarreari amaia emonez, Aita Eliseo karmeldarrak zuzenduta, neskatillen abesbatzak "Agur Jauna" abestu eban.

Ospakizun onetan, Uribeetxebarria'tar Tomas, Bizkai'ko Aldundiko kultur-arduraduna, bere laguntzaille Legarreta'tar Jose Manuel'ekin, tartekoa izan zan, baita Zornotza'ko alkatea dan Gurtubai'tar Alberto be.

Euskerazaleak alkarte, samiñez beterik aurkitzen da, Bizkai'ko semetarik andienetako bat gure artetik joan izan danean. Orain dagoan lekutik, bere laguntza artzen jarraituko dogula uste dogu, aberriaren onerako, baita euskerearena be.

EUSKAL ASTEA

Origaitik, urtero atontzen dogun euskal astea egiteko garaian, uste izan genduan, ezin gengikeala gauza ego-kiagorik egin, aita Santi'ren gomuteari dalako astea eskiñi baiño. Iru egunetakoa izan zan, urrengo egita-muaz:

- 1 - Aita Santi olerkaria. Murua'tar Jose Maria'k
- 2 - Aita Santi edeslea. Olazar'tar Martiñ'ek
- 3 - Aita Santi euskalduna. Zubikarai'tar Augustiñ'ek.

Izlariok euron ezpenetatik dilindan izan ginduezan, gaiak eta itzaldien ontasuna gain-gaiñekoak izan ziralako.

IPUIN SARIKETA

Aspaldiko oitureari jarraituz, igaz be, ipuin-sariketa bat iragarri genduan, eta beti tez erantzun ona izan dogu, leikideen kopuruagaitik eta ontasunagaitik. Ona emen, sarituen izenak:

- 1'go sana: LEGARRETA'tar ASIER
- 2'go saria: GOIKOETXEA'tar IÑAKI
- 3'go saria: ETXABURUA'tar ASIER
- 4'go saria: ZUBIKARAI'tar AUGUSTIN

EGUTEGIA

Ezin uts egin aurtengo egutegiak, eta oikoa dana,

ANTZERKIA

BBK'ren diru-laguntzaz gure erakundeko bazkide batzuen lanaz, eta Martin Olazar'en alkarte-lanaz, aurtengo be argitaratua izan da, laburra bada be, eusko sutondotan eguneroko irakurketeak uts egin ez dagian.

ZER ALDIZKARIA

Beste urte batez gure adkiskariaren jarraipenari ekin dautsagu gure irakurleei adierazoz, gure aalegiñak egi-ten doguzala Bizkai'ko euskerearen guna artzeko, eta areago be, ain zapalduta aurkitzen danean gure agintarien ardurazagaitik. Bizkaieraganako maitasuna aldarrikatzen entzungo dautsegu, baiña banetako ardura ta erakundeen jokaera ulertzeziña salatzen dogula, baiña urteak joan urteak etorri, egoera bardiñean darraigu, gure bizkaieraa gero ta zapalduago ikusten dogula.

Eta barriro be aldarrikatzen dogu, indar guztiakaz aaleginduko gareala milla ta milla urteetan zear bizi izan dan gure euskera onek, bizi izaten jarraitu dagian, ez bai dago euskerarik iltea merezi dauanik.

Gure irakurle guztiai eskatzen dautsegu, idazlanak bialdu dagiskuezala, auxe dalako laguntzarik onena, eta gure bidetik jarraitzeko artu dagikegun arnasik biziena.

LIBURU AZOKA

Beste urte batez gure argitalpenak (Euskerazaintza'-renak eta Euskerazaleak'enak) Durango'n urtero egiten dan liburu-azokara bialdu doguz. Aurten, lekua, aurreko urteena baiño askozaz andiago ta egokiagoa azaldu da. Gure salketak gitxi gora beera, betikoak izan dira.

LAGUNTZAK

Beti lez, bearreko ekintzak burutu aal izan doguz, gure bazkideen diru-laguntzagaitik, eta erakunde batzuen sorospenari esker.

Ezin dagiket aipatzeke utzi, Bizkai'ko Aldundiaren diru-laguntza eta Bilbo'ko udalarena. Bioakie gure eskerrik biziena emon daskuen arnas barriagaitik, eta gure ziurtasuna, euskerearen aide ekiten jarraituko dogula, oraiñarte egin dogun antzera.

Besterik ez, Jaun-andreok

ZUBIRI'TAR IÑAKI'K

GERNIKA

Euzko Abendaren
irudi egin zaitu
erritar fedeak;
zuregan gelditu zan
abendaren arnasa:
odol ta semeak.

Zuzen ta bake zale
bakar zara munduan,
bakezko bizia;
ez dozu ondamuraik,
zure lurra landurik;
enda berezia.

Gernika ta aritza
eliza legez dira
euskotar bizian;
legerik ederrenak
erritik artzen ziran
aritz zar azpian.

Franko ta adiskideek
noraiño il nai eben
euskaldun bizia...?
Gudarik gogorrena...!
Izenik santuenaz
ausi nai erria...!


Egun gorria izan zan...
Biotzaren edena
burdiña biurtuz...
Gizon gaiztakeriak
gorroto baltzenagaz,
suz erria austuz.

Negar ta odol arek
bizira deika dagoz
biotz barrenian.
Neke samin aren gain
Euskadi sortuko da
zuzentasunian.

Anbotoko arkaitzak
negarrez egon ziran
suaren aurrian;
baiña, gaur, ernai dagoz
euzkotar seme oro
zure min bizian.

PAULIN

EUSKALDUN BARRIENTZAT



AZALPENA

Marrazki onetan gauza onek dagoz. Aurkitu!

Maillu bat
 burruko bat
 bei bat
 pala bat
 titare bat
 eta kapela bat.

KARMELE



Itzau begiak une batez eta
begiratu zeure inguruari.

Eraikiñak, kaleak, aurtzaroen jolasten
zendueneko lekuak, ikastegia... Ainbat
eta ainbat gauza ez dira leengoak, ez da?
Garaiak aldatu egin dira. Ezin ezetz esan.
Aiekin batera, zuk oraindik atsegin
dozuzan gauza asko be desagertu egin dira.
Urbiltasuna, begikotasuna,
zuzeneko artu-emona... Orain egiozu so
antziñako sukursal orren argazkiari.
Eta konparatu BBK'ren egungo edozein
bulego ta sukursalekin.
Ez dira ain ezbardiñak.
Azkenean, garrantzitsuenak
bere orretan dirauelako.
Gauza batzuk oiñarrikoak dira eta on
ondo dakigu BBK'kook.
Garaietan zear aldatu egin gara. Jakiña.
Bahia leengo berberak gara.
Zuri laguntzeko. Eta zure alegiñaz
eta geurez onurak itzultzeko.

Betidanik.



BBK
Bilbao Bizkaia Kutxa
EZ DAGO GEIAGO ESKINTZEN DAUANIK